fundación sgae fundazioa



III GAZTEDOKU.

Dokumental sariak
Premio a documentales

ABRIL - SEPTIEMBRE	ORGANIZA FUNDACIÓN SGAE FUNDAZIOA	
2025	2 SARI	2 PREMIOS

fundación sgae fundazioa

Euskadiko SGAE Fundazioak, ikus-entzunezko edukiak sustatzearen dagokion helburuarekin bat eginez, eta, konkretuki, dokumentalen sorkuntza indartzeko xedeari jarraituz, GazteDoku 2025 Sarietarako III. deialdia egiten du.

GAZTEDOKU 2025: OINARRIAK

Deialdi honetan Euskal Autonomia Erkidegoan egoiliarrak diren mundu osoko dokumentalen zuzendariek parte har dezakete. Bide batez, parte har dezakete bertan jaiotakoak, edonon bizi direla ere gaur egun. Guztia, baldin eta baldintza hauetakoren bat betetzen badute:

1. Parte hartzeko **betebeharrak** honakoak dira:

- SGAEko bazkideak izatea edo SGAEko bazkide ez izanik, bazkide izateko prozesuan egotea.
- 35 urte baino gutxiago izatea.
- Ezingo dira aurkeztu SGAEko Zuzendaritza Batzordeko kide, SGAE Fundazioaren Patronatuko kide edo SGAEren Lurralde Kontseiluetako kide diren egileak.

2. Sarietan **parte hartzeko**, obraren zuzendariak izena eman beharko du oinarri hauei 1. eranskin gisa eransten zaien eskabide-inprimakia eta 2. eranskineko datu pertsonalak erabiltzeko baimena bidaliz. Bi dokumentuak behar bezala beteta eta sinatuta bidali beharko dira ***nsancheza@fundacionsgae.org*** helbide elektronikora. Halaber, dokumentalaren banatzailearen eta/edo ekoizlearen harremanetarako datuak adierazi beharko dira, halakorik badago. Dokumentazio hori aurkezten ez bada, erakundeak automatikoki ezetsiko du eskaera.

3. Erabateko **gai librea duten dokumentalak aurkez daitezke. Iraupena gehienez 30 minutukoa** izango da. Parte-hartzaile bakoitzeko aurkez daitekeen obra kopuruak ez du mugarik, epaimahaiak ezingo du hautatu egile beraren dokumental bat baino gehiago.

   Aurkeztutako dokumentalek egiletza propioa izan beharko dute, 2022ko ekainaren 1etik aurrera eginak.

   Parte-hartzaileek beharrezko eskubide guztiak izan behar dituzte aurkeztutako lanen gainean, baita sormen-dokumentalaren erakusketaren gainekoak ere, eta SGAEk ez du honen inguruko erantzukizunik bere gain hartzen. Zuzendariak ez baditu jabetza intelektualari dagozkion eskubideak, ekoizpen enpresa batekin kontratua sinatu duelako,

dagokion enpresaren datuak eman beharko ditu sari honetarako hautagaitza aurkezterako garaian.

4. Gaztelaniaz edo euskaraz filmatuta ez dauden lanek bi hizkuntza hauetako batean azpitituluak izan beharko dituzte. Dokumentalak edozein formatu digitalean onartuko dira, hauen balorazioa burutzeko. Irabazle suertatzen diren lanak eta ondoren programatuak izan daitezkeenak zehazteke den formato batera moldatu egin beharko dira.

5. Deialdi honen **epea** 2025eko apirilaren 4an hasi eta 2025eko irailaren 15ean itxiko da, 23:59etan. Aurkezteko epea amaituta, SGAE Fundazioak ikus-entzunaren alorrean ospe handia duten profesionalek osatutako hautaketa batzorde bat izendatuko du. Batzorde horrek eskabideak baloratuko ditu eta dokumental irabazleak hautatuko ditu, eta hautatutako zuzendariei hautaketa horren berri emango die. Epaimahaiaren erabakia 2025eko urrian jakinaraziko da.

6. Deialdi honetako **sariak** honako hauek izango dira: "Dokumental onenari" lehen saria, 2.500 eurokoa (zergak barne) eta "Euskaraz egindako dokumental onenari" beste sari bat, 1.500 eurokoa (zergak barne). Epaimahaik bere egiten du aipamen berezi bat egiteko aukera, 1.000 euroko sariarekin (zergak barne). Sariei dagozkien ordainketak dokumental irabazleen zuzendariek soilik jaso ahal izango dituzte. Zuzendari bat baino gehiagok egindako obrak badira, diru-saria horien artean banatuko da; zuzendari guztiek kopuru bera jasoko dute.

7. Lan irabazleak aukeratu ondoren, antolakuntza-taldeak parte-hartzaile guztiei emaitzaren berri emango die. SGAE Fundazioak bere ahalegin guztiak egingo ditu aukeratutako dokumentalak Euskadiko zinemaldietan ikusiak izan daitezen. SGAE Fundazioak beretzat gordetzen du, halaber, obra irabazleak SGAEren edo SGAE Fundazioaren mendeko Espainiako geografiako beste areto batzuetan proiektatu eta hurrengo sei hilabeteetan programatzeko eskubidea.

8. Zuzendari parte-hartzaileek baimena ematen diete SGAEri eta SGAE Fundazioari beren ikus-entzunezko obraren zati bat, gehienez hiru minutukoa, argazkiak eta/edo dokumentalaren fotogramak edozein komunikabidetan erabiltzeko, online bitartekoak barne. Erabilera hori ekimen honen etorkizuneko edizioak sustatzera hedatuko da. Dokumentalaren zuzendariak jabetza intelektualari dagozkion eskubiderik ez badu,

ekoizpen enpresa bati eman dizkiolako, zuzendaria enpresa honekin beharrezko xehetasun guztiak kudeatzeko konpromisoa hartzen du, SGAE eta SGAE Fundazioaren onurarako.

9. Zuzendari parte-hartzaileek SGAE Fundazioa eta erakunde laguntzaileak salbuesten dituzte indarrean dagoen legediaren plagioaren edo beste edozein urraketaren ondorioz parte-hartzaileren batek izan dezakeen edozein erantzukizunetik.

10. Parte-hartzaileek beren borondatez ematen dituzten datu pertsonalak fitxategi batean sartuko dira, eta fitxategi horren arduraduna SGAE Fundazioa izango da. Datu horiek bakarrik erabiliko dira eskatzaileak deialdi honetan duen parte-hartzea kudeatzeko. Datu pertsonalak babesteko oinarrizko eskubidearen titularrak eskubide hauek ditu: datuak eskuratzeko, zuzentzeko, eteteko, mugatzeko, aurka egiteko, datuak eramateko eta banakako erabaki automatizatuak ez hartzeko. Horretarako, honako helbide honetara jo dezakezu idatziz: Fundación SGAE, Servicios Jurídicos, calle Bárbara de Braganza, 7, 28004 Madrid. Idazkian izena, abizenak eta erabilitako eskubidea eta arrazoia adierazi beharko dira, eta NANaren, AIZaren edo pasaportearen fotokopia aurkeztu beharko da.

11. Parte-hartzaileek baimena ematen diote SGAE Fundazioari aukeratuei eta/edo horien argazkiei buruzko informazio profesionala zabaltzeko, publizitatea egiteko eta beren eremu profesionalean jendeari ezagutarazteko.

12. Arau orokorrak.

A. Parte-hartzaileek, deialdi honetan parte hartzerakoan, oinarri hauek osorik onartzen dituzte, baita SGAE Fundazioaren erabakiak ere.

B. Erreklamaziorik edo gatazkarik egonez gero, parte-hartzaileek zein antolatzaileek Bilboko auzitegien jurisdikzioaren mende jarri beharko dute, eta legokiekeen foruari uko egin beharko diote.

1. ERANSKINA

“2025 GAZTEDOKU III SARIAK” IZEN-EMATE ORRIA

ESKAERA EGITEN DUENAREN DATUAK (DOKUMENTALAREN ZUZENDARIA)

Izen-abizenak :

Jaiotza data:

Helbidea:

Udalerria:

Posta Kodea:

NAN/EIZ/Pasaportea:

Telefonoak:

Posta elektronikoa:

Kurrikulum laburra (gehienez 300 karaktere):

DOKUMENTALAREN DATUAK

Titulua:

Luzapena:

Sormen-urtea:

Kasua bada, estreinu-lekua eta data:

Ekoiztetxearen izena:

Ekoiztetxaearen helbidea eta kontaktua:

Filmaketa-formatua:

Logline:

ESTEKA jarri:

Sinopsi laburra idatzi (gehienez 300 karaktere):

2. ERANSKINA

IZAERA PERTSONALA DUTEN DATUAK ERABILTZEKO BAIMENA

Con la firma de la presente solicitud el participante AUTORIZA a FUNDACIÓN SGAE el uso de los datos personales que facilita en el presente documento para:

- Recibir llamadas, notificaciones y avisos, por cualquier medio físico o analógico, necesarios para la gestión de su participación en el premio "GazteDoku 2025".
- Difundir, por cualquier, medio datos biográficos del director, así como fotografías e imágenes del mismo siempre que esa difusión se haga vinculada a su participación en el premio "GazteDoku 2025".

FUNDACIÓN SGAE es una entidad sin ánimo de lucro constituida conforme al Derecho español bajo la forma jurídica de fundación y que consta debidamente registrada en el Registro de Fundaciones de Competencia Estatal con el número 314. Tiene su domicilio social en la calle Bárbara de Braganza nº 7, 28004 Madrid y está dotada de CIF G-81624736.

Entre sus fines está la promoción de obras audiovisuales y de los/las autores/as de las mismas (directores, realizadores, guionistas, argumentistas y músicos), así como la promoción cultural de las obras para su revalorización y difusión. Para ello realiza, entre otras actividades, la convocatoria de premios, concursos, ayudas, actividades de formación, etc.

EL/LA SOLICITANTE AUTORIZA EXPRESAMENTE, con la firma de esta solicitud de inscripción para participar en el Premio "GazteDoku 2025", a FUNDACIÓN SGAE a que sus datos se incorporen en un fichero de titularidad de FUNDACIÓN SGAE para que los mismos sean empleados, única y exclusivamente, para la gestión de su participación en el Premio. Igualmente CONOCE que conforme a la normativa vigente en materia de protección de datos puede hacer uso de sus derechos de acceso, oposición, limitación, supresión, rectificación, portabilidad y a no ser objeto de toma de decisiones automatizadas enviando un escrito con sus datos y el motivo del ejercicio de derechos por escrito bien al domicilio social de Fundación SGAE a la atención de los servicios jurídicos, o bien al e-mail informacion@fundacionsgae,org. Asimismo, queda informado que puede presentar reclamación de sus derechos ante la Agencia Española de Protección de Datos.

Y para que así conste, firma la presente solicitud de inscripción y consentimiento para el tratamiento de sus datos en.....a.....de.....de 2025.

Firmado: